

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

«As bestas»

Banuen jakin-min handia “As bestas” pelikula ikusteko eta, egia esan, filmak ez dit huts egin. Bi gaik atentzioa eman didate. Lehenengoa: filmaren hasieran, protagonistak Guardia Zibilaren aurrean salatzzen du bere bizilagunen aldetik jasaten ari diren jazarpena, eta guardia zibil batek gutxi gorabehera esaten dio hori «bizilagunen arteko liskarra» baino ez dela. Nire eskarmentuagatik badakit auzokideen arteko liskar bat dirudien horren atzean, askotan, mehatxuak, erasoak eta suntsipena daudela. Azken batean, delituak eta garrantzirik ematen ez zaion indarkeria handia, tragikoki amai daitekeena, pelikula islatzen duen moduan.

Bigarrena izan da, hain zuzen ere, ez nuela espero bizilagunen arteko gatazkaren eragilea Norvegiako enpresa bat izatea, haize-sorgailuak jartzeko proiektu batekin. Enpresa ahalguztidun horiek diru mordoa jarri ahal dute mahai gainean; baztertu ezinekoak diren eskaintza horiek errealitatean agerian uzten dute batzuek eta besteek zeinen balorazio desberdinak egiten dituzten bizi diren lekuaren inguruan: batzuentzat eskaintzak beste bizitza bat esan nahi du, eta beste batzuentzat, berriz, duten eta aukeratu duten bizimodua galtzea, hondamendia.

Hain balorazio desberdinekin, nekez konpon daiteke gatazka, are gehiago sortuko den elektrizitatea ez den herrixka hornitzeko, zeinaren kontsumoa hutsaren hurrengoa baita, baizik eta sarritan urrun dauden hiri eta industriak hornitzeko. Izan ere, gure gizartean, hirietarako energia eta materialen hornitzaile eta metabolismoaren hondakinen hustubide papera esleitu zaio landari. Eta urbanizatuak landa eremuan duen posizio nagusi horrekin, enpresak diru zorro betearekin joan daitezke eta nahi dutena lortzeko bazterrak nahas ditzakete.

Eskala handiago batean, Borrelek esan zuen Europan oihanez inguratutako lorategi batean bizi ginela. Ara-

zoa da ahaztu egin zitzaiola esatea «oihan» horrek behar dena ematen diola «lorategiari», energia eta materialak jasotzeko ahalegin handia egiten baitu, baina hura asko saiatzzen da «oihaneko» biztanleei sartzen ez uzteko. Eta, egia esan, Europako lurraldea ere ez da lorategia, jardín batek ez baitu inolako asmorik gozamen hutsetik harago, eta Europako lurraldea, berriz, jendea norabide batera edo bestera bultzatzen duten indar-lerroek zeharkatzen dute plusbalioa maximizatzeko: lana hemen, aisia han; orain txalet atxikietan bizi, orain gentrifikatutako hiriguneetan...

Sinestezina da, adibidez, hiriek landaredia kontrolpean edukitzeko gastatzen duten diru, gasolina eta lanordua kopurua. Hainbestearino da garrantzitsua eremu urbanizatuen izaera artifiziaia, ezen Juan Carlos Izagirre Donostiako alkate ohiak berdeguneetan bazka zedin artalde bat sartzea proposatu zuenean, ordenako jendea lepora jauzi zitzaion: nola etorriko ziren tu-

Baztertu ezinekoak diren eskaintza horiek errealitatean agerian uzten dute bizilagun batzuek eta besteek zeinen balorazio desberdinak egiten dituzten bizi diren lekuaren inguruan

ristak ardiak bazkatzen diren hiri batera! Hiriek ez dute ezer aurrezten, baina gainerako guztiei aurrezpen eta trantsizio energetikoaz sermoiak egiten dizkiete.

Hiriguneek trantsizio energetikoarekin duten benetako konpromiso hori hor badago, adibidea eman dezakete, adibidez, Urgullen haize-sorgailu bat jarritz. Hiri osotik ikusi eta jendeari energia aurreztearen zein garrantzitsua den gogorarazteko bezain handia. Eta bide batez, frankistek han goian jarritako esperpentoa ezabatu ahal izango lukete. Proposamen hori beste hiriburueta ere zabaldu daiteke, eta behin hori eginez gero, gainerako mendiak jarraitu ahal izango litzateke. •